

IRUÑEKO UDALEKO

ESKOLA ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN

ARAUDIA

2025-2026 DENBORALDIA



AURKIBIDEA

1.1.	LIGAKO HELBURU NAGUSIA	3
1.2.	BERARIAZKO HELBURUAK	3
2.	LIGAREN ANTOLAKETA	4
3.	ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN ARAUDIA	4
3.1.	JOKALEKUA	4
3.2.	BALOIA	4
3.3.	JOKALARI KOPURUA	5
3.4.	JOKALARIEN JANTZIAK	5
3.5.	ARBITRAJEA	5
3.6.	PARTIDAREN IRAUPENA	5
3.7.	IRTEERAKO SAKEA	6
3.8.	TANTO MARKAKETA	6
3.9.	FALTAK ETA OKERTASUNAK	6
3.10.	OHARTARAZPENAK ETA KANPORAKETAK	6
3.11.	PENALTIA	6
3.12.	ALBOKO SAKEA	6
3.13.	ATEKO SAKEA	6
3.14.	KORNERRA	7
3.15.	ARAU BEREZIAK	7
3.16.	PARTIDAREN AMAIERA	7
3.17.	EMAITZAK	7
3.18.	INSTALAZIOAK ETA ORDUTEGIAK	8
3.19.	TALDEEN ORDEZKARIAK/ENTRENATZAILEAK	9
3.20.	ATZERAPENAK EDO BERTAN BEHERA UZTEAK	9
3.21.	JAKINARAZPENAK	9
3.22.	PRENTSA ETA SARE SOZIALETAKO ARGITALPENA	10
4.	DIZIPLINA NEURRIAK	11
5.	ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK	12

1. IRUÑEKO UDALAREN ESKOLA ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN HELBURUAK

1.1. LIGAKO HELBURU NAGUSIA

Iruñeko Udalak antolatzen duen, eta Gesport Gestión Deportiva S.L enpresak kudeatzen duen, Eskolako Areto-Futboleko Ligaren helburua nagusia Iruñean eskola mailako Kirola sustatzean datza. Horretarako eskola areto-futboleko aisialdiko eta ez selektiboa den txapelketa bat antolatzen da non ez da beharrezko federatuta egotea, txapelketa zuzentzen den adina duen edonork parte hartu ahal izango dute, gehienak Iruñean erroldatuak daude, eta kirol-jarduera ofizialera oso egokitutako araudiarekin.

Eskola Areto-Futboleko Udal Liga honek planteamendu osagarri eta orekatzailea du adin horietako kirol federatuaren berezko disfuntzio batzuen gainen, eragina dutenak, besteak beste eskuragarritasunean, unibertsaltasunean, hezkuntza balioetan, berdintasunean eta desgaitasuna duten pertsonen arretaren tratamenduan.

1.2. BERARIAZKO HELBURUAK

- Multikirola sustatzeko zeharkako estrategia ezartzea:
 - Multikiroleko jarduerak dituen onurei buruzko kontzientziakoa.
 - Multikiroleko eskaintza zabaltzea parte hartzaileen adinaren eta mailaren arabera, ate irekien jardunaldiak, proba-saioak, etab.
 - Irakaskuntza materiala zabaltzea oinarriko mugimen-trebetasun anitzen ikaskuntza areagotzeko metodología barne hartzen duena, hainbat kiroleko entrenamenduetako ariketa eta errutinekin.
 - Nafarroako Kirol Jokoen Multikirol Jardunaldiari buruzko informazioa (Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua)
 - Eskola Areto-Futboleko Udal Ligaren amaieraren ekitaldian Kirol Anitzeko Azken Jardunaldia.
- "La Puerta de Atrás-Atzeko Atea" izeneko kirol-bidea sustatzeko zeharkako estrategia:
 - Kirola uzteari buruzko familientzako arreta-zerbitzua.
 - Beste kirol eskaintza batzuk uzten dituzten adingabeak dituzten familientzako harrera zerbitzua, Ligako taldeetan sartzea errazteko.
- Kirol-balioak sustatzeko zeharkako estrategia:
 - Familien eta kirolarien artean desiragarriak diren balioez kontzientziatzea
 - Ligan kiroltasunari buruzko sailkapen sistema bat ezartzea, sailkapen orokorrean garrantzia izango duena.
- Eskola-eremuan kirol-jarduera areagotzea dagoeneko antolatutako Liga batean parte-hartzeko pizgarrien bidez, kontutan hartuz Liga horretan hainbat ikastetxetako eta klubetako neska eta mutilak parte hartzen dutela kategoriatan banatuta eta kirol- maila kontutan hartu gabe.
- Areto-Futboleko Liga batean parte hartzea, non parte-hartzeari lehentasuna ematen zaion, ahal den neurrian lehiaketa jardueraren helburu nagusi gisa ahaztuz.

Eskola Areto-Futboleko Udal Ligaren Araudia

Eguneratze data: 2025/10/03

- Beren sexua dela eta Ligan gutxiegi irudikatuta dauden pertsonen parte-hartzea sustatzea.
- Desgaitasunen bat duten pertsonak integratzea eta beraien parte-hartzea areagotzea baldin eta mugimen-trebetasun nahikoak badituzte eta areto-futboleko kirolaren eskakizunekin bat badatozte. Horretarako Areto-Futboleko Ligan beharrezkoak diren erakartze, atxikitze eta esku-hartze hezitzaile ekintzak egingo dira.

2. LIGAREN ANTOLAKETA

Areto-Futbolke Ligak leihaketa erraza izango du:

- 1. FASEA "Txapeldunen Liga" izenekoa, urriaren erdi aldera hasiko dena eta larunbatero jokatu dena, jai-zubietan eta EGUBERRIETAN izan ezik.
- 2. FASEA "udaberriko kopa" izenekoa, 1. FASEA amaituta, eta aste bateko atsedenenaren ondoren, fase honi hasiera emango zao maiatzaren amaiera arte.
- Amaierako Jaia. Ekaineko lehen edo bigarren asteburuan Amaierako Jaia egiten da, non parte-hartzaile bakoitzari garaikur bat ematen zaion.

Amaierako Jaia erakargarriagoa egiteko eta Eskola Areto-Futboleko Udal Ligan parte hartu duten hurrek beste kirol batzuk ezagutu ahal izateko egun berean Kirol Anitzeko jardura antolatuko da horrela Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligako parte-hartzaileek beste kirol motak ezagutzeko eta praktikatzeko aukera izanen dute.

Halaber, denboraldian zehar, antolatzaileek taldeetako arduradunei kirol anitzeko jardunaldi edo erakustaldiei buruzko informazioa helaraziko zaie, eskola adinean daudenak kirol mota desberdinak probatzeko aukera izan dezaten.

3. ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN ARAUDIA

3.1. JOKOZELAIA

Ate areak 6 metroko erradioa izango du atearen erditik kontatzen hasita eta penaltia ateko area mugatzen duen marraren gainean kokatuko da.

3.2. BALOIA

Baloia jartzea izango da etxean jokatzeko duen taldearen ardura. Baloia areto-futboleko 3 edota 4 neurrikoa izango da, hau da 58 eta 63 cm arteko diametroa dutenak. Gutxieneko kalitatea izan dezaten eskatzen da, kontutan hartuz parte-hartzaileen adina eta indarra.

Eskola Aretu-Futboleko Udal Ligaren Araudia

Eguneratze data: 2025/10/03

3.3. JOKALARI KOPURUA

Talde bakoitza entrenatzaileak egokitzen jotzen duen jokalaria kopuruaz osatuta egongo da.

Jokalekuan 4 jokalaria eta atezain bat egongo dira.

Atezainak, sakeetan izan ezik, oinekin joka dezake baloia ateko areatik kanpo, "Ateko sakean" aipatzen den bezalaxe.

Ezein kategoriatan ezin izango da partida hasi 4 jokalaria baino gutxiagorekin (atezaina barne). Kanporatzeak egotekotan ezin izango da aipatutako jokalaria kopurua baino gutxiago geratu, bestela partida bertan behera geratuko da.

Nahi adina aldaketa egin ahal izango dira baina **bakarrik atsedenaldietan**; beraz, **4 ZATIETAKO EDOZEIN JOKATZEN ARI DIREN BITARTEAN EZIN IZANGO DIRA ALDAKETAK EGIN**, lesioa dagoenean izan ezik.

NAHITAEZKOA izango da **jokalaria guztiek gutxienez 12 minutu jarraian jokatzera** (zati oso bat), kirol eta parte-hartze irrikak grina leihakorraren gainetik egon daitezen.

JOKALARI BATEK ERE EZIN IZANGO DU jokalekuko jokalaria bezala 4 zatiak jokatu, matematikoki ezinbesteko izan ezik, aurreko arauaren helburu berarekin.

3.4. JOKALARIEN JANTZIA

Talde bakoitza behar bezala uniformatuta aurkeztu beharko da. Bi taldeek kolore bera baldin badute, kanpoko taldeak kamiseta aldatu beharko du edo petoekin jolastu.

3.5. ARBITRAJEA

Arbitrajea egiten duen pertsonak araudia ezagutu beharko du, bai eta aplikagarri diren zigorrak edo diziplina-neurriak ere.

Etxeke taldeak arbitrajea egingo duen pertsona izendatuko du. Edozein taldeek, antolakuntzak baloratuko duen arrazoi justifikatua aurkeztuz gero, eska dezake arbitrajea antolakuntzako arbitrajeko langile batek egin dezala.

Talde guztiei eskatzen zaie arbitrajea ahalik eta **objetibotasun eta inpartzialtasun** handienarekin egitea, jokalarien artean jokalekuan hartutako erabakiekiko errespetua sustatzea eta arbitroari ahalik eta gehien laguntzea.

3.6. PARTIDAREN IRAUPENA

Partidak **4 zati izango ditu, 12minutukoa bakoitza**, eta zati bakoitzaren artean atsedenaldi txiki bat egongo da (ERABATEKO ZORROZTASUNA ESKATZEN DA ZATI BAKOITZAREN IRAUPENEAN).

3 atsedenaldi daudenez, ez da hutsarterik izango.

Eskola Aretu-Futboleko Udal Ligaren Araudia

Eguneratze data: 2025/10/03

3.7. IRTEERAKO SAKEA

Irteerako sakea zelaiaren erditik eta edozein norabiderantz egingo da, sakea egingo duen aurkako taldearen jokalariai baloitik gutxienez 2 metroko distantziara egongo direlarik.

3.8. TANTO MARKAKETA

TANTOTZAT joko da baloiak ateko marra erabat gainditzin duenean.

3.9. FALTAK ETA OKERTASUNAK

Falta eta okertasun guztiak zuzeneko jaurtiketa libre batekin zigortuko dira arau-haustea gertatu den lekuan, ate arean gertatzen direnak izan ezik, hauek penaltiz zigortzen direlako.

Estalkia duten jokalekuetan baloiak sabaia jotzen badu jaurtiketa egin duen jokalaria **alboko sakearekin** zigortuko zaio. Alboko sakea araua hautsi duen jokalaria zegoen lekutik gertuen egin beharko da.

Hesiak baloitik 3 metrora jarriko dira.

3.10. OHARTARAZPENAK ETA KANPORAKETAK

Kiroltasunik eta laguntasunik handiena eskatzen dugu, kasu horietara ez iristeko.

3.11. PENALTIA

Ateko arearen gainean dagoen penalti puntutik jaurtiko da.

3.12. ALBOKO SAKEA

Alboko sakea 8 eta 9 urteko kategorietan baloia atera den lekutik egingo da, **bi eskuekin, baloia jokariaren buruaren gainetik pasatuz, alboko marra zapaldu gabe eta oinak lurretik altza ez ditzaten saiatzuz**. Alboko sakea gaizki eginez gero sakea errepikatu beharko da. Bigarren aldi honetan ere gaizki egiten bada kontrako taldeak egingo du alboko sakea.

Kontrako jokalariai gutxienez 3 metrora jarriko dira.

Ezin izango da zuzenean tanto bat lortu alboko sakea eginez.

3.13. ATEKO SAKEA

Atezainak baloia beti bi eskuekin atera beharko du, bai baloia gol lerrotik atera denean, bai blokeo baten ondoren egin behar badu. Sake horretan baloiak ezin du aurkariaren zelai erdian bote egin aurretik bere zelai erdian bote egin ez badu edo zelaiko jokalaria batek ukitu ez badu eta hau gertatzekotan araua hautsi duen taldea **zuzeneko jaurtiketa libre** batekin zigortuko da baloiak marra zeharkatu duen lekutik hurbilen dagoen zelaiaren erdiko marritik egin beharrekoa.

Ateko sakean, atezainak ezin izango dio **INOIZ BALOIA BERE BURUARI BOTA ETA GERO OINAREKIN JOKATU**. Baloia taldekide edo aurkari batengandik badator orduan bai oinarekin jokatu ahal izango du.

Eskola Areto-Futboleko Udal Ligaren Araudia

Eguneratze data: 2025/10/03

Atezainak ateko sakea modu horretan egiten badu zuzeneko jaurtiketa libre batekin zigortuko zaio arau-haustea gertatu den lekutik hurbilen dagoen ateko area mugatzen duen marraren puntutik egingo dena.

Atezainak ezin dio baloia pasatu ateko arearen barruan dagoen taldekide bati. Hori gertatuko balitz area horren ertzean zuzeneko jaurtiketa libre batekin zigortuko litzateke.

3.14. KORNERRA

Kornerra bi eskuekin, baloia jokalariaire buruaren gainetik pasatuz eta oinak lurretik altxa gabe egingo da. Ezin izango da zuzenean tanto bat lortu korner sake bat eginez.

3.15. ARAU BEREZIAK

Atezainak baloia areatik kanpo jokatu ahal izango du, eskuekin egiten ez badu.

Atezainari ezingo zaio lagapen bat baino gehiago egin, aurkako taldeko norbaitek baloia ukitu ez badu. Ulertuko da lagapena egiten dela atezainak baloia bere eskuekin jasotzen duenean, beraz oinekin jokatzen badu ez da lagapentzat hartuko. Arau-haustea gertatuz gero, zuzeneko jaurtiketa libre batekin zigortuko da, atezainak bigarren lagapena egin duen puntutik hurbilen dagoen ateko area mugatzen duen lerroaren gainean egingo dena.

3.16. PARTIDAREN AMAIERA

Arbitroak partidaren amaiera adierazten duenean, bi taldeak eta beraien entrenatzaileak jokalekuaren erdian jarriko dira eta elkar agurtuko dute, baita ikusleak ere.

3.17. EMAITZAK

Ligan kiroltasuna sailkatzeko sistema bat gehitu da, sailkapen orokorrean garrantzia izango duena.

Kirol emaitzek honako puntuazioa emango dute:

Kirol emaitza	Puntuak	Puntuazio mota
Ettxeko taldea 1 - kanpoko taldea 0	2	Astekoa
Ettxeko taldea 0 - kanpoko taldea 1		
Ettxeko taldea 1 - kanpoko taldea 1	1	Astekoa

Eskola Aretu-Futboleko Udal Ligaren Araudia

Eguneratze data: 2025/10/03

Kirol emaitzez gain, **kirol balioetan** ere puntuazioa emango da, eta honako hau izango da:

Kirol balioak	Puntuak	Puntuazio motak
Talde mistoa: Emakumezko eta gizonezkoen partaidetza dutenak	6	Urtekoa
Talde inklusiboa: desgaitasunen bat duten pertsonak dituzten taldeak	6	Urtekoa
Heziketa ekintzak: Aurtengo denboraldian zehar taldeari lotutako edozein pertsonak (ordezkari, entrenatzaile, jokozaia), antolatzaileek proposatutako edo Nafarroako Kirol eta Jarduera Fisikoaren Institutak (NKJFI) antolatutako kirol balioei buruzko heziketa ekintza bat egin duen pertsona bakoitzek	6	Urtekoa
Aldizkako Kiroltasun keinuak: Taldeko edozein kideek egindako aldizkako kiroltasun keinua; dokumentu bat aurkeztu beharko da non keinua azaldu behar den	6	Urtekoa
Partidetan kirol balioen betetzea: Partidaren jokozainak akta bete beharko du eta adierazi beharko du zein kirol balio bete diren eta zein ez, eta horien arabera puntu batzuk egokituko dira edo ez ☐ Kirol balio guztiak bete dira: 2 Puntu ☐ 4 kirol balio bete dira: Puntu 1 Partida bakoitzean puntuak ematen dituzten kirol-balioak: ☐ Lagunarteko agurra partidaren hasieran eta amaieran ☐ Entrenatzaileak jokozainaren erabakiak errespetuz onartu ditu ☐ Publikoa errespetuz jokatu du aurkako taldearekin ☐ Jokalariak jokozaina errespetatu dute ☐ Arbitrajeak araudia bete du ☐ Taldearen puntualtasuna ☐ Entrenatzaileak jokozainaren erabakiak errespetuz onartu ditu	2 1	Astekoa
Taldeko jokalarien parte hartzea webguneko/Multikirola/ Doako saioak Klubetan eta Federazioetan (https://ligafutbolmunicipalpamplona.es/sesiones-de-prueba-gratis-en-clubes-y-federaciones/) → Taldekide guztiek gutxienez doako saio batean parte hartzea lauhileko bakoitzean → Taldekide erdiek gutxienez doako saio batean parte hartzea lauhileko bakoitzean Taldeko jokalaria batek edo bik gutxienez doako saio batean parte hartzea lauhileko bakoitzean	4 3 1	Lauhileko

- Asteko kirol balioetan dauden puntuak webgunearen bidez edo aktaren bidez jakinaraziko zaizkio antolakuntzari (argazkia).
- Urteko kirol balioetan dauden puntuak denboraldi osoan zehar jakinaraziko zaizkio antolakuntzari.

3.18. INSTALAZIOAK ETA ORDUTEGIAK

Talde bakoitzak pista bat izango du (kanpoko edo barrukoa) non, adierazitako orduan, etxeko partidak jokatuko dituen.

Jokalekuko ateak beren sareak izan behar dituzte eta nahitaezko segurtasun-neurriak bete



Gestión Deportiva S.L.

Plaza Eguzki, n.º 13 Bajo- Mutilva alta (Navarra)

Tfno: 948153106 Fax: 948247903 email: maite@gesportsl.es

Eskola Aretu-Futboleko Udal Ligaren Araudia

Eguneratze data: 2025/10/03

beharko dituzte.

Arau orokor gisa, aurkako taldea partidarako zehaztutako orduan agertu beharko da. Dena den ordu txarreko ordutegia zehazten denean (goizeko 9etan, eguerdiko 14:00etan edo 15:00etan) kanpoko taldeak arrazoitu ahal izango du ordutegi horietan ezin duela jokatu.

Partida hasi baino lehen, taldeek instalazioetan egon beharko dute denbora nahikoarekin.

Talde bat ez bada partida hasteko adierazitako orduan agertzen, kontrako taldea eta arbitroak 20 minutuz itxarongo dute gertatutakoaren akta egin aurretik. Kasu horretan etxeko taldeak aste barruan egun eta ordu bat bilatu beharko du partida jokatzeko, eta ez badu aurkitzen antolakuntzak jokaleku bat erraztu beharko du.

Kanpoko taldearen eskura aldagela bat jarriko da, eta posible bada dutxekin. Taldea mistoa bada aldagelak eta komunak sexuaren arabera bereizita daudela ziurtatu beharko da.

3.19. TALDEEN ORDEZKARIAK / ENTRENATZAILEAK

Jokalarien zerrendak partidetara eramatearen arduradunak izango dira.

Edozein entrenatzailek edozein unetan kontrako taldeari eska diezaioke jokalarien zerrenda erakustea, taldean izena-eman dutenak kontsultatzeko.

Bi taldeetako ordezkariak edo entrenatzaileak akta sinatu beharko dute, dagokien frogagiria eskuratu eta lehenbailehen antolakuntzari helarazi (argazkia bidali daiteke WhatsApp bidez **670-612871** telefonora).

3.20. ATZERAPENAK EDO BERTAN BEHERA UZTEAK

Partidak atzeratu ahal izango dira, baldin eta bi taldeak ados jarri badira eta ondoren antolakuntzari Fax edo telefono-dei bidez jakinarazi bazaio. Partida hori egutegian adierazitako data ofizialern baino ondorengo 15 egunetan jokatu beharko da edo hurrengo 8 egunetan, baldin eta atzeratutako partida azken aurreko edo azken faseko jardunaldiari badagokio.

Hurrengo 15 edo 8 egun horietan antolakuntzak ez badu partida jokatu izanaren eta emaitzaren berririk, bi taldeekin harremanetan jarriko da egoera argitzeko. Partida noiz jokatu den adostasunik ez badago, **antolakuntzak ezarriko du partida jokatzeko data, hurrengo astean zehar.**

Partida bat bertan behera utzi ahal izango da ezinbestekak direla eta.

3.21. JAKINARAZPENAK

• www.gesportsl.es webgunean:

- Ligari buruzko informazioa jasotzeko
- Norgehiagokak, egutegiak eta sailkapenak kontsultatzeko
- Araudia deskargatzeko
- Aktak deskargatzeko
- Emaitzak jakinarazteko
- Albisteak eta oharrak



Gestión Deportiva S.L.

Plaza Eguzki, n.º 13 Bajo- Mutilva alta (Navarra)

Tfno: 948153106 Fax: 948247903 email: maite@gesportsl.es

Reglamento Liga Municipal Fútbol Sala Escolar

Fecha actualización: 01/10/2024

- **WhatsApp** 670612871, Aktaren argazkia bidai
- **Mugikorra** 670612871, telefono bidezko arreta
- mbienzobas@gesportsl.es posta elektronikoan, emaitzen jakinarazpena edo kontsultak
- **APP: emaitzak eta norgehiagokak kontsulta ahal izango dira**

Android

- Zure gailuan ireki Google Play Store. ...
- Bilatu Gesport eta aukeratu
- Jarraitu pantailan agertzen diren jarraibideak edukia osatzeko eta deskargatzeko.

IOS

- iPhone-an, iPad-ean edo iPod touch-ean, ireki App Store.
- Bilatu deskargatu nahi duzun APP-a.

**3.22. PRENTSA ETA SARE SOZIALETAKO ARGITALPENAK**

Antolakuntzak sailkapenak eta emaitzak ezagutzera emango ditu astero bere web orrian eta Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkarien bidez taldeen jarraipena egiteko. Hori dela eta, sailkapenak modu erangikorrean egiteko, aurreko puntuan ezarritako bitartekoren bat erabiliz emaitzak antolatzaileari **ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN** iritsi behar zaizkio.

Sare sozialetan jarraitu ahal izango dituzu Iruñeko Udaleko Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligarekin lotutako albisteak.



WhatsAppeko kanala: Liga Municipal Fútbol Sala Escolar-Ayuntamiento de Pamplona
<https://www.whatsapp.com/channel/0029Vawq61I0wajtgSNv0e1f>



Facebookeko profil nagusia:
<https://www.facebook.com/LigaMunicipalFutbolSalaPamplona/>



Instagrameko profil nagusia:
<https://www.instagram.com/ligamunicipalfutbolsalairuna/>

Informazio gehiago:

<https://www.pamplona.es/temas/deporte> www.ligafutbolmunicipalpamplona.es



4. DIZIPLINA NEURRIAK

ARAU-HAUSTEA	KIROL-ZIGORRA	DIZIPLINA-ZIGORRA
Partidan zehar istilu arinak (eztabaidak) eragitea, bai arbitroarekin, bai kontrako taldeko jokalaria edota gurasoekin.	Ezer	1. aldia, kanporatzeko ohartarazpena. 2. aldia, Ligatik kanporatze automatikoa.
Partidan zehar istilu larriak (irainak, borrokak) eragitea, bai arbitroarekin, bai kontrako taldeko jokalaria edota gurasoekin	Ezer	Ligatik kanporatze automatikoa Antolatzaileak ikertu eta erabakiko du kanporaketak 2 taldeei eragiten die edo bakarrik gertakariak eragin zituenari
Partidaren joaten diren neska-mutil guztiek gutxienez denbora batez jolasteko betebeharra ez betetzea.	Behin egiaztatuta, partida galdutzat emango zaio arau-hasutea egin duen taldeari, eta sailkapenatik 2 puntu gehiago kenduko zaizkio.	1. aldia, kanporatzeko ohartarazpena. 2. aldia, txapelketatik kanporatze automatikoa.
Jakalari batek 4 zatiak zelaiko jokalaria gisa jokatzeari debekatzen duen araua ez betetzea (matematikoki beste aukerarik ez dagoenean izan ezik)	Behin egiaztatuta, partida galdutzat emango zaio arau-hasutea egin duen taldeari.	1. aldia, kanporatzeko ohartarazpena. 2. aldia, txapelketatik kanporatze automatikoa.
Taldearen jokalaria-zerrendan agertzea Nafarroako Futbol Federazioan izena-emanda duten jokalariek	Behin egiaztatuta, partida galdutzat emango zaio arau-hasutea egin duen taldeari, eta sailkapenatik 2 puntu gehiago kenduko zaizkio.	1. aldia, kanporatzeko ohartarazpena. 2. aldia, txapelketatik kanporatze automatikoa.
Partidan jokalaria guztien zerrenda zigilatua ez aurkeztea.	Kontrako taldea uko egin diezaiokete partida jokatzeari eta galdutzat emango zaio zerrenda zigilatuta aurkeztu ez duen taldeari. Partida jokatzeko bada baina kexaren bat baldin badago arau-hasutea egin duen taldeari sailkapenatik 2 puntu kenduko zaizkio	Ezer
Ligan beraien sexuagatik gutxiegi irudikatuta dauden pertsonen berdintasuna errespetatzen ez duten jarduerak, iruzkinak, keinuak eta ekintza iraingarriak.	Behin egiaztatuta, partida galdutzat emango zaio arau-hasutea egin duen taldeari, eta sailkapenatik 2 puntu gehiago kenduko zaizkio.	1. aldia, kanporatzeko ohartarazpena. 2. aldia, txapelketatik kanporatze automatikoa.
Ligan jokatzeko duten pertsona desgaituen edo bere taldeekin lotutako jarduerak, iruzkinak keinuak eta irainak	Behin egiaztatuta, partida galdutzat emango zaio arau-hasutea egin duen taldeari, eta sailkapenatik 2 puntu gehiago kenduko zaizkio.	1. aldia, kanporatzeko ohartarazpena. 2. aldia, txapelketatik kanporatze automatikoa.
Desgaitasunarengatik edo sexuarengatik egindako jazarpena, Protokolo Espezifikoa aplikatu ondoren		Protokoloaren bidez jakinarazi ondoren, jazarlea edo jazarleak Ligatik kanporatuko dira
Txapelketatik kanporaketa arau-hauste hauetako edozein dela eta gauzatu bada ez da itzuliko taldeak ordaindutako inskripzio kuotarik.		

5. ESKOLA ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

NORETZAT	IRUÑEKO UDALEKO ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN ESKUBIDEAK
TALDEAK, JOKALARIAK ETA ENTRENATZAILEAK	8 eta 11 urte bitarteko, biak barne, jokalaria guztiek eskubidea dute Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligan parte hartzeko. Bi sexuei zuzenduta dago, eta parte-hartze mistoa ahalbidetu eta lehenetsi behar da, sexuaren arabera bereizitako talde bat osatu ezin bada. Liga honetan parte-hartzeak lehenetsia du, horregatik partidara joaten diren neska-mutil guztiak Araudian kategoriatan bakoitzeko ezarritako gutxieneko minutu batzuk jokatu behar dituzte.
	Kirol-balioak, jolas-balioak, baterako hezkuntza eta desgaitasuna duten pertsonen integrazioa sustatzen dituen Liga batean parte hartzera, non gutxieneko joko-denobora orekatuak eta kiroltasuna lehenesten diren eta desiragarriak diren heziketa-balio eta jarreraren kontzientziario kanpainen berri izatera webgunearen bidez (www.gesportsl.es) edo sare sozialen bidez.
	Etengabe informatuta egotea Ligari, kanpainiako hasierako salkapenei, eta abarri buruz (www.gesportsl.es web orrian)
	Egutegia egokitu dadila eskola, hornidura eta instalazioen beharretara, bertan kokatzen baitira parte hartzen duten taldeen jokalekuak; hau da, Aste Zuria, zubiak,... (Eskola Egutegia) eta errespetu dezala jokalarien kontziliario familiarra eta laborala baii eta bere familiarrena.
	Taldekideen aurkako edozein indarkeria edo tratu txar mota gaitzetsi eta hioen aurrean erantzuteko kirol ingurune batean parte hartzeko eskubidea eta gatazka, jazarpen eta sexuagatiko edo desgaitasunagatiko diskriminazio egoeren aurrean babestuak izateko eskubidea, Araudia eta diziiplina-neurriak aplikatuz, nire taldeko jokalaria edo beste taldeko jokalaria, arbitroak, entrenatzaileak edo publiko orokorrak egindako ekintzen aurrean.
	Taldea osatzen duten pertsona guztien integritatea; hau da jokalaria, entrenatzaileak, arbitroak eta jokalarien familiak, sozialki onartezinak diren jokaeren aurrean, erasoaren aurrean, tratu txarren aurrean eta sexuagatik edo desgaitasunagatiko jazarpen egoeren aurrean.
	Eskola Areto-Futboleko Udal Ligan (8-11 urte) entrenitzera, ondo pasatzera, parte-hartzera eta norberaren kirol gaitasunak eta trebetasunak garatzera, genero-joerarik gabe, zigorrak gabe eta umiliaziarik gabe.
	Arbitrajeak egiten dituzten pertsonen Eskolako Areto-Futboleko Udal Ligaren Araudia ezagutu eta aplikatu dezaten
	Antolatzaileak jokaleku bat bilatzea, taldeak berea ezin badu utzi
	Partidak jokatzen diren instalazioetan sexuaren arabera bereizitako aldagelak eta bainugelak izatea, eta horien erabilera bereizia izatea, hau da, neskak eta mutilak nahastu gabe.
	Eskola Areto-Futboleko Udal Ligaren antolaketa eta garapenarekin duten gogobetetze maila adieraztera.



NORETZAT	IRUÑEKO UDALEKO ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN BETEBEHARRAK
TALDEAK, JOKALARIAK ETA ENTRENATZAILEAK	Bere taldeko edota kontrako taldeko kideei, arbitrajeaz arduratzen diren pertsonei, entrenatzaileei eta oro har familiako kideei errespetua eta tratu ona ematea.
	Araudia ezagutu eta betetzea eta obeditzea arbitrajea egiten duen pertsonak ezarritako jarraibideak eta zehapenak, Araudia aplikatzearen ondorioz ezarritakoak, hala nola hezibidez eta errespetuz tratatzea.
	Partiduetara behar den puntualtasunarekin joatea, eta norberaren instalazioak eta kontrako taldearen instalazioak errespetatzea, behar bezala erabiltzea eta aurkitu ditugun modu berean uztea.
	Jokariak errespetatzea, haien gaitasunak eta trebetasunak aintzat hartzea eta garatzea, inolako zigorrik gabe, umiliaziorik gabe eta genero-joerarik gabe.

NORETZAT	IRUÑEKO UDALEKO ESKOLAKO ARETO-FUTBOLEKO UDAL LIGAREN BETEBEHARRAK
ENPRES KUDEATZAILEA	Liga bat kudeatzea, antolatua dagoena, ezarritako helburuak errespetatzen dituen, Araudi batek arautua dagoena, parte-hartzen duten taldeen gehieneko oreka ahalbidetzen duena eta izena emandako taldeen gogobetetzea ezagutzea ahalbidetzen duena.
	Eskola Areto-Futboleko Udal Ligan hezkidetzat sustatzea, edozein jardura diskriminatzailea bertan behera uzten dituen neurrien bidez, genero-estereotipoak saihestuko dituen hizkera edo hitzak erabiliz eta genero-gaietan sentzibilizatzeko ekintza eta neurri espezifikoak ezarri sexua dela eta gutxiegi irudikatuta dauden pertsonak erakartzeko eta eusteko.
	Desgaitasunen bat duten pertsonen parte-hartzea ahalbidetzea eta lehentasuna ematea, haientzako egutegi bereizia egiterik ez badago, eta mugimen-trebetasun nahikoa eta areto-futboleko kirolak dituen eskakizunekin bat datozen maila duten pertsona desgaituak erakartzeko eta eusteko neurri espezifikoak ezartzea.
	Eskola Areto-Futboleko Udal Ligan gerta daitezkeen jazarpen egoerak gainbegiratzeko eta Araudian aurreikusitako diziiplina neurriak betetzea eta betearaztea.
	Eskola Areto-Futboleko Udal Ligako Kirol-balioak eta jolas-balioak sustatzea
	Erantzunkizun zibileko aseguru bat kontratatzea hirugarrenen aurrean, gutxienez 150.000€-ko estaldura duena, eta istripu aseguru individual bat Ligan parte-hartzen duten pertsona bakoitzarentzat baliaezintasun arriskua eta heriotza gutxienez 12.000€-ko zenbatekoa estaltzen duena. Aseguru hau ohiko kuotaren barne dago parte-hartzeagatik.

Araudia betez gero, guztiok zoriondu ahal izango gara gure helburuetan, haurren **PARTE-HARTZEA, ENTRETENIMENDUA ETA JOLASA** direnak, lortutako arrakastagatik.

